# ERANDIOKO EUSKARA SUSTATZEKO IV. EKINTZA PLANA DISEINATZEKO PARTAIDETZA PROZESUA



AURKEZPENA 2017-09-21

# ERANDIOKO EUSKARA SUSTATZEKO IV. EKINTZA PLANA DISEINATZEKO PARTAIDETZA PROZESUA, 2017

- PROZESUAREN HELBURUAK:

Erandioko III. ESEP ebaluatu eta IV. ESEP diseinatu

| | IRAILA | URRIA | AZAROA | ABENDUA |
|---|---|---|---|---|
| **LEHEN URRATSA** | Abiatzea eta aurkezpena | | | |
| **BIGARREN URRATSA** | | III. Euskara Planaren baloraziorako eta IV. Planaren erronkak identifikatzeko lan saioak. | | |
| **HIRUGARREN URRATSA** | | | IV. Euskara Planerako ekarpen eta lehentasunen jasoketarako lan saioak. | |
| **LAUGARREN URRATSA** | | | | Emaitzak eta itzulketa |

# ERANDIOKO EUSKARA SUSTATZEKO IV. EKINTZA PLANA DISEINATZEKO PARTAIDETZA PROZESUA, 2017



# ERANDIOKO EUSKARA SUSTATZEKO IV. EKINTZA PLANA DISEINATZEKO PARTAIDETZA PROZESUA, 2017

METODOLOGIA: IKERKETA EKINTZA PARTE-HARTZEA (IEP-IAP)

TALDE ERAGILEA EDO IEPT

| FUNTZIOAK |
|---|
| Prozesuaren **gidaritzaz** arduratuko den gunea da: prozesua gertutik jarraitu, norabidea adostu… |
| Prozesuko lanen **kontrasteak** egiteko erabaki gunea da. |
| **Aliatuak bilatu**, sortu eta saretzeaz arduratuko da. |
| - Prozesuaren **lan faseen jarraipena** eta egituratzea:<br>- **Egitasmoa gainbegiratzea**, eta beharrezko moldaketak<br>- Prozesuan zehar **zailtasunak eta oztopoak identifikatu**, aurreikusi eta alternatiba zein aukera posibleak proposatu.<br>- Etengabeko **jarraipena eta balorazioa**.<br>- **Komunikazio** euskarrien gainbegiratzea. |

# EUSKARAREN BILAKAERA ERANDION

## DATU ESTATISTIKOEN USTIAKETA, 2017



# HELBURUAK:

- Erandioko herritarrek duten euskara gaitasuna, lehen hizkuntza, etxeko hizkuntza edota kaleko erabilera gaur egun zenbatekoa den aztertzea.
- Aipatu ezaugarri hauen bilakaera zein izan den aztertzea (1981etik gaur egun arte).
- Aipatu ezaugarri hauek Erandioren inguruarekin konparatzea, hala nola, eskualdearekin edota Bizkaiarekin.
- Erandioko euskararen inguruko bestelako datuen egoera edo bilakaeraren azterketa (hezkuntza eredua, helduen euskalduntzea-alfabetatzea, udal langileen euskara ezagutza,…)

# BILAKAERA HISTORIKOA ETA DEMOGRAFIKOA

- XIX. mendearen erdialdetik XX. mendearen amaiera arte biztanleriak goranzko bilakaera izan du. Iragan mendeko 70eko hamarkadaz gerora, ostera, biztanleria egonkortu egiten da.

| XX. mendearen erdialde arte | |
|---|---|
| **Urtea** | **Biztanleria** |
| 1860 | 1.678 |
| 1887 | 2.931 |
| 1900 | 6.385 |
| 1910 | 6.881 |
| 1920 | 10.045 |
| 1930 | 11.268 |
| **XX. mendearen erdialdetik aurrera** | |
| **Urtea** | **Biztanleria** |
| 1981 | 25.122 |
| 1986 | 24.465 |
| 1991 | 24.977 |
| 1996 | 23.613 |
| 2000 | 22.853 |
| 2001 | 22.422 |
| 2006 | 23.844 |
| 2011 | 24.175 |
| 2016 | 24.240 |

**Iturriak**: Instituto Nacional de Estadística (INE). Bizkaiako Herrialdeari buruzko estatistika aipamena; EUSTAT. Estadísticas de Población y Viviendas (Auñamendi Eusko Enziklopedia aitatua)

# BILAKAERA HISTORIKOA ETA DEMOGRAFIKOA

## MIGRAZIO MUGIMENDUAK

- Biztanleriaren bostena soilik jaio da udalerrian. Gaur egungo biztanleriaren ia herena Euskal Herriko lurraldeetatik kanpo jaio da.

| Biztanleriaren jaioterriak 2011 | |
|---|---|
| EAEn jaiotako biztanleria | 16.464 |
| Erandion jaiotako biztanleria | 5.589 |
| Bizkaiko beste udalerrietan jaiotako biztanleria | 10.654 |
| Araban jaiotako biztanleria | 90 |
| Gipuzkoan jaiotako biztanleria | 131 |
| Estatuko beste herrialde batzuetan jaiotako biztanleria | 5.642 |
| Atzerrian jaiotako biztanleria | 2.069 |
| Erandioko biztanleria guztira. | 24.175 |

Iturria: Eustat eta INE

- Mugimendu demografiko hauek, noski, eragin nabaria izan dute euskara eta euskararen transmisioan.
- Kultura jatorriak ere garrantzia izango du euskararen ezagutzari lotutako erabilgarritasunean, identifikazioan eta jarreran.

# EUSKARAREN EZAGUTZA

Zenbaki absolutuetan, eta bi urtetik gorako biztanleriari dagokionean, Erandioko 5.706 biztanle "**elebidunak**" dira (% 24,1) eta 6.778 "**elebidun hartzaileak**" (% 28,9). "**Elebidunak**" eta "**elebidun**" **hartzaileen** proportzio banaketa Bilbo Handiaren oso antzekoa da.

**Hizkuntza-gaitasuna, lurraldetan. 2011 (%)(>2urte)**

| | Bizkaia | Bilbo Handia | Erandio |
|---|---|---|---|
| Elebidunak | 31,2 | 24,1 | 24,3 |
| Elebidun hartzaileak | 27,1 | 28,7 | 28,9 |
| Erdaldun elebakarrak | 41,7 | 47,2 | 46,7 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |



# EUSKARAREN EZAGUTZA

Ezagutza belaunaldien artean ezberdina da.

- Batez ere, 30 urtetik beherako belaunaldiek osatzen dituzte belaunaldi elebidunenak.
- Adinean gora egin ahala, pertsona euskaldunen ehunekoek nabarmen egin dute behera.
- Baina salbuespen bat badago; 70 urte baino gehiago duten pertsonen artean euskararen ehunekoek gora egin dute. Multzo hau udalerriko jatorrizko belaunaldiek, edo iragan mendeko 40ko hamarkadaren aurretik inguruko herrietako familia euskaldunetan jaiotako belaunaldiek osatzen dutela esan daiteke.

# EUSKARAREN EZAGUTZA

| Hizkuntza-gaitasuna eta adina. 2011 (>5urte) | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adina | Elebidunak | | Elebidun hartzaileak | | Erdaldun elebakarrak | | Guztira |
| | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | |
| 5-9 | 790 | % 73 | 235 | % 22 | 54 | % 5 | 1.079 |
| 10-14 | 673 | % 79 | 136 | % 16 | 42 | % 5 | 851 |
| 15-19 | 554 | % 63 | 177 | % 20 | 154 | % 17 | 885 |
| 20-24 | 513 | % 47 | 265 | % 24 | 305 | % 28 | 1.083 |
| 25-29 | 521 | % 33 | 455 | % 29 | 583 | % 37 | 1.559 |
| 30-34 | 493 | % 23 | 818 | % 37 | 880 | % 40 | 2.191 |
| 35-39 | 404 | % 17 | 931 | % 38 | 1.105 | % 45 | 2.440 |
| 40-44 | 305 | % 15 | 592 | % 28 | 1.206 | % 57 | 2.103 |
| 45-49 | 193 | % 11 | 361 | % 21 | 1.155 | % 68 | 1.709 |
| 50-54 | 134 | % 9 | 248 | % 16 | 1.143 | % 75 | 1.525 |
| 55-59 | 94 | % 6 | 235 | % 16 | 1.182 | % 78 | 1.511 |
| 60-64 | 90 | % 6 | 192 | % 13 | 1.192 | % 81 | 1.474 |
| 65-69 | 74 | % 6 | 162 | % 12 | 1.083 | % 82 | 1.319 |
| 70-74 | 111 | % 11 | 86 | % 9 | 773 | % 80 | 970 |
| 75-79 | 112 | % 12 | 66 | % 7 | 722 | % 80 | 900 |
| 80-84 | 121 | % 20 | 39 | % 6 | 458 | % 74 | 618 |
| >=85 | 86 | % 19 | 26 | % 6 | 348 | % 76 | 460 |
| Guztira | 5.268 | % 23 | 5.024 | % 22 | 12.385 | % 55 | 22.677 |

**Iturria**: 2011ko errolda

# EUSKARAREN EZAGUTZA

## EZAGUTZA BILAKAERA (2 URTE EDO GEHIAGOKO POPULAZIOA)

Erandioko euskararen berreskurapen tasak paralelosan doaz Nerbioi ibaiaren inguruko beste udalerriekin batera.

Eustaten datuen arabera, 2006. urtera arte pauso kualitatibo garrantzitsuak eman ziren euskararen ezagutza mailan. 2006 eta 2011. urteen artean, ordea, ezagutzaren igoera horretan geldialdi bat egon zen, bai Erandion, baita Bilbo Handia eta Bizkaian ere.

| % Euskaldunak lurraldeka | | | |
|---|---|---|---|
| Urtea | Bilbo Handia | Bizkaia | Erandio |
| 1991 | 10,4 | 18,9 | 12,7 |
| 1996 | 15,4 | 23,7 | 18,9 |
| 2001 | 16,7 | 25 | 17,8 |
| 2006 | 24,5 | 31,3 | 24,9 |
| 2011 | 24,1 | 31,2 | 24,3 |
| **Iturria**: Erroldak. Euskararen Datu Basea. Datu Soziolinguistikoak | | | |

# LEHEN HIZKUNTZA



# BILA INDIZEA

| Hizkuntza-ibilbideen bilakaera Erandion > 5 urte 2011 | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Elebidunak | | | Elebidun hartzailek | | Erdaldun elebakarrak | | Guztira |
| Euskaldun zaharrak | Jatorrizko elebidunak | Euskaldun berriak | Partzialki euskaldun berriak | Partzialki erdaldunduak | Guztiz erdaldunduak | Erdaldun zaharrak | |
| 1.208 | 670 | 3.390 | 4.621 | 403 | 176 | 12.209 | 22.677 |
| 5,3 | 3,0 | 14,9 | 20,4 | 1,8 | 0,8 | 53,8 | 100 |

**Iturria**: 2011ko errolda



# BILA INDIZEA



# ETXEKO HIZKUNTZA

- Etxean gehienetan hitz egiten den hizkuntza zein den neurtzerakoan, lehen-hizkuntzarako aztertutako erantzun berberak aztertzen dira: euskara, gaztelania, biak edo besteren bat.
- 5 urtetik gorako herritarren artean, euskara etxeen % 3,4ean da hizkuntza nagusia eta beste % 4,4ean hizkuntza partekatua.
- Adin txikiko haur edo gaztetxoak dituzten etxeetan euskararen ehunekoak altuagoak dira. Gauza bera gertatzen da 70 urtetik gorako herritarrak dituzten etxeetan.




**Iturria**: 2011ko Errolda

# KALE ERABILERA

## EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA (2011-2016)

| Kale-erabilera | | |
|---|---|---|
| Urtea | Euskararen erabilera | Oinarria (behatutako solaskideak) |
| | (%) | Kop. |
| 2011 | 1,3 | 2.231 |
| 2016 | 2,0 | 7.067 |



# KALE ERABILERA

**Auzo ezberdinak**: neurketa hiru auzunetan osatu zen, eta euskaldunen proportzio oso ezberdina erakutsi zuten.

| Euskararen kale-erabilera, zonaldearen arabera. Erandio, 2016 (euskaraz, %) | | | |
|---|---|---|---|
| Hizkuntza | Auzoak | | |
| | Altzaga | Astrabudua | Erandiogoikoa |
| Euskaraz | 1,4 | 0,5 | 10,2 |
| Gaztelaniaz | 98,3 | 99,5 | 89,8 |
| Beste hizkuntzetan | 0,3 | 0,0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Oinarria (behatutako solaskideak) | 2.984 | 3.309 | 774 |



# EUSKARAREKIKO JARRERA

Euskararekiko interesari dagokionez, Bizkaiko datuak EAEko datu orokorren oso antzerakoak dira. 16 urtetik gorako herritarren % 38k “interes oso handia” duela adierazten du eta beste % 28k “nahiko interes”, hau da, herritarren bi herenek (% 66) euskararekiko interes positiboa azaltzen du.

| Orokorrean, nolakoa da euskararekiko duzun interesa? | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Lurraldea | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | GUZTIRA |
| Oso handia | 31,0 | 38,0 | 45,0 | 39,0 |
| Nahikoa handia | 33,0 | 28,0 | 33,0 | 30,0 |
| Erdipurdikoa | 13,0 | 14,0 | 10,0 | 13,0 |
| Nahiko txikia | 10,0 | 9,0 | 8,0 | 9,0 |
| Ez dut batere interesik | 11,0 | 9,0 | 4,0 | 8,0 |
| Ez daki-Ez du erantzun | 2,0 | 1,0 | 1,0 | 1,0 |
| Ehuneko bertikalak | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| n (absolutu haztatu gabeak) | (500) | (960) | (700) | (2.160) |

# ERANDIOKO EUSKARA SUSTATZEKO IV. EKINTZA PLANA DISEINATZEKO PARTAIDETZA PROZESUA

